

MATEO de LAYA y CABEX 1630 – 1698



MATEO de LAYA y CABEX

Itsas gerlari ospetsuen azkenetariko bat izanik, Mateo de Laya Espainiako Itsas gainbeherako prozesuaren erdian agertzen zaigu., balentria eta porrota nahastuz. Bizkaiko Gueñesen jaio zen, baten batek Pasaian eta baita ere Markoletan, jaio zela esan duen arren. Armadan oso gazte eta laguntzaile (*paje*) gisa sartu zen 1642an eta borrokan berehala hartu zuen parte Gatako lurmuturraren inguruan 1643an. Hogeita hamar urteko gerraren azken batailetan parte hartu zuen, batez ere Frantziako eta Holandako ontzidien aurka. Geroxeago Bizkaiko Golkoan ibili zen Miguel Okendo ilobaren agintepean eta 1652an Rocheleko setioan egon zen. Geroxeago, 1655ean eta 1659an, Frantziarekin Pirinioetako bake ituna sinatu zuten arte, gutxienez, Felipe IV.ak Frantziako eskudra eta haren merkataritza kargamenduak erasotzeko baimena eman zion (“*patente de Corso*” berak esan zuen moduan). Kortsario gisa ibili zen garai hartan Kantauriko Eskudraren laguntzaz gerrako bi fragata hartu zituen. Bata frantziarra zen, 150 marinelez eta artilleriako 20 piezaz horniturik. Bestea Turkiarra 380 marinelez eta artilleriako 22 piezaz horniturik. Frantziako fragata kortsarioa zen ere eta kapitaina San Juan Ordenako kidea zen. Turkiako fragata garai horretan galeren gobernadorea zen Melchor de la Cueva Alburquerqueko dukeari eman zion Cadizen. XVI.

mendeko hirurogeita hamarreko hamarkadan turkiarren eta algeriarren aurka borrokatzeko izendatu zuten, eta 1675eko Oraneko borrokan egon zen. Bertan izugarritzko erasoak pairatu zuen etsaiaren hainbat fragaten aldetik eta bere ontzia eta burua arriskuan ikusirik ontziari sua eman eta uretara salto egin zuen ontziaren entseinaz. Gertaera horretatik bera eta beste bost marinela baino ez ziren bizirik irten. Geroago Mediterraneoan zehar ibili zen eta 1676an Stromboliko borrokan nabarmendu zen. Kanpaina horietan egindako merezimenduengatik Ozeanoko Armadaren Almirante Nagusi izendatu zuten. Halaber 1688ko Oraneko setioan bere balentria erakutsi zuen berriro eta Done Jakueren abituaren Zaldun izendatu zuten. 1689tik aurrera Ozeanoko eskudraren agintea hartu zuen Indiako ibilbideak piratengandik babesteko. Carlos II.a erregearen aginte garaian, 1692an eliteko Gerra Kontseilu Nagusiaren eta Armadaren Batzordean sartu zen. Kontseilutik bertatik, eta bizitza itzali zitzaion arte, Espainiako eskudren boterea berpizten saiatu zen, baina ez zuen bere helburua lortu.

Como quizás uno de los últimos exponentes de los “guerreros del mar”, Mateo de Laya se nos muestra en plena decadencia naval española, mixtura entre el arrojo y la derrota. Vio la luz en Güeñes, Bizkaia, si bien otros atribuyen su origen a Pasaia o incluso a Marcoleta. Ingresó como *paje* en la Armada muy joven, durante 1642, entrando en combate casi de inmediato sobre el cabo de Gata en 1643. Intervino así en las acciones de las postrimerías de la *Guerra de los Treinta Años*, especialmente contra la flota francesa y holandesa. Se halló luego durante algún tiempo bajo las órdenes de Miguel de Oquendo (nieto) a lo largo del golfo de Vizcaya, siendo localizable en el asedio a La Rochelle durante 1652. Después, según él mismo declaró, obtuvo *patente de corso* en 1655 por otorgamiento de la Corona de Felipe IV, a fin de hostigar a la Escuadra francesa y sus cargamentos comerciales, al menos hasta la Paz de los Pirineos con París en 1659. Su actividad como corsario a lo largo de aquel período le llevaría al mando de varias naves bajo los auspicios de la Escuadra del Cantábrico, apresando dos fragatas de guerra, una francesa, con 20 piezas de artillería y 150 hombres, y la otra turca, con 22 piezas de artillería y 380 hombres. La fragata francesa era igualmente corsaria y su capitán pertenecía a la Orden de San Juan. En el caso de la nave turca, Mateo de Laya la entregó en Cádiz al Gobernador de Galeras, Melchor de la Cueva, duque de Alburquerque. Durante la década de los setenta del siglo XVI fue designado en la lucha contra argelinos y turcos, interviniendo por tanto en el combate de Orán de 1675, donde ante el grave hostigamiento de varias fragatas enemigas, prendió fuego a su nave para evitar que fuese capturada, lanzándose al mar con el estandarte del buque. De aquel lance se salvaron únicamente él y cinco marineros más. Pasó más tarde a las acciones del Mediterráneo central, destacándose en el combate de Strómboli de 1676. Por sus méritos en aquellas campañas fue ascendido a Almirante General de la Armada del Océano, volviendo a demostrar sus dotes de guerrero en el asedio de Orán de 1688, siendo desde entonces designado Caballero del hábito de Santiago. A partir de 1689 tomó el mando de la Escuadra del Océano, al objeto de proteger de la piratería la Carrera de Indias. Ya con Carlos II como monarca, entró en el elitista “*Consejo Supremo de Guerra y Junta de Armadas*” durante 1692, desde donde intentó sin éxito hasta el final de su vida renovar el poder de las escuadras hispanas.

Perhaps as one of the last examples of the “sea warriors”, Mateo de Laya, a mixture of bravery and defeat, lived during the decline of the Spanish Navy. He was born in Güeñes, Bizkaia, although some say he came from Pasaia or even from Marcoleta. He joined the Navy as a *cabin boy* at a very young age in 1642, and almost immediately found himself taking part in the battle of Cape Gata in 1643. He took part in the last battles of the *Thirty Years' War*, especially against the French and Dutch Fleets. Then, for a time, he found himself under the orders of Miguel de Oquendo (grandson) in the Bay of Biscay, where he fought at La Rochelle in 1652. Later, as he stated himself, he obtained a *letter of marque* in 1655 granted by Philip IV, to harass the French Fleet and French cargoes, at least until the Treaty of the Pyrenees with Paris in 1659. His activity as a corsair throughout that period led him to command several vessels under the protection of the Bay of Biscay Squadron. He captured two frigates, one was French carrying 20 guns and 150 men and the other was Turkish, carrying 22 guns and 380 men. The French frigate was also a corsair and her captain belonged to the Order of Saint John. Mateo de Laya took the Turkish frigate to Cadiz and handed it over to the Master of Galleys, Melchor de la Cueva, Duke of Alburquerque. During the seventies in the 16th century, he was sent to fight against the Algerians and Turks. He fought in the battle of Oran in 1675, where, severely attacked by several enemy frigates, he set fire to his ship so that it would not be taken as a prize and jumped overboard with the ship's standard. He, together with five other seamen, were the only survivors of that battle. Later he took part in actions in the central Mediterranean, distinguishing himself at the Battle of Stromboli in 1676. Thanks to his merits in the said campaigns, he was promoted to Admiral General of the High Seas Fleet and once again displayed his skills as a warrior in the siege of Oran in 1688, after which he was made a Knight of Santiago. After 1689, he took command of the High Seas Squadron in order to protect the route to the West Indies from pirates. When Charles II became king, he joined the elitist Supreme War Council and the Navy Council in 1692, from where he unsuccessfully tried, until he died, to recover the power of the Spanish Navy.